

OBERBAYERN KÜNSTLERHAUS-EKIKO TRUKE-PROGRAMA

Amarika Proiektuak, Arabako Foru Aldundiak eta ARTIUM Zentro-Museoak Munich-eko Cervantes Institutuarekin eta ARICH (Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentzia)-rekin elkarlanean **truke eta egoitzako hiru dirulaguntzaren** deialdia luzatu dute Araban jaio eta/edo erroldan sartuta dauden artistentzat. Egoitza hiru hilekoa izango da (2010eko iraila, urria eta azaroa), Bavaria Garaiko SCHAFFHOF-EUROPÄISCHES KÜNSTLERHAUS-en.

XEHETASUNAK

- 1) Programak iraungo duen hiru hiletan, artistek 750 euro jasoko dituzte hilean, eta horrez gainera lan egiteko lantegi bat eta bizitzeko apartamentu bat izango dute. Bidaia-xahupenak, barne garraioa, mantenua eta arte ekoizpenak edo egonaldiak berak sortutako beste edozein xahupen dirulaguntza jaso duen artistak berak ordaindu beharko ditu.
- 2) Hautatuek egingo duten lanaren eta ikerketa artistikoaren emaitzarekin taldeko bi erakusketa egingo dira: bata Schaffhof–Europäisches Künstlerhaus-en, Freising hirian, Munich-etik gertu, 2010eko urrian, eta bestea Amarika aretoan, Vitoria Gasteizen, 2011n (data oraindik zehazteke).
- 3) Bavaria Garaiko erakundeak eta dirulaguntza jasoko duten arabar artistek hitzarmen bat izenpetuko dute, guztien eskubide eta betebeharrak arautzeko.

ESKAERAREN BALDINTZAK

- 1) Eskakerak euskarri analogikoan eta/edo digitalean (word eta/edo pdf) aurkeztu beharko dira eta ondoko atalak izan beharko dituzte:
- 2) — NANaren fotokopia
— Arabako Lurralde Historikoko edozein udaletako erroldan sartuta egotearen agiria, 2009ko urtarrilaren 1ean hasita gutxienez, edota, bestela, Arabako Lurralde Historikoa jaio izanaren agiria.
— Curriculum artistikoa eta harremanetarako datu pertsonalak (gehienez ere 3 orrialde)
— Duela gutxiko lanen txostena, gehienez ere 10 irudi dituen.
— Gaztelaniaz eta ingelesez idatzitako gutuna, norbere lana azalduz eta trukeko programa honetan parte hartzeko motibazioak emanez (gehienez ere 2 orrialde)
- 3) Eskakerak aurkezteko azken eguna eta ordua: **uztailaren 27ko (asteartea) 14:00ak**, posta elektronikoz (intercambioamarica@artium.org), posta arruntez nahiz ARTIUMen eskuz esku emanez (Frantzia kalea 24, 01002 Vitoria-Gasteiz). Argi eta garbi adierazi beharko dira nahiz mezu elektronikoaren «asunto» delakoan, nahiz gutun-azalean: TRUKE PROGRAMA eta ARTISTAREN IZENA.

ERABAKIA

- 1) Amarika batzordeko bi kide, Arabako Foru Aldundiko kide bat eta ARTIUM Zentro-Museoko bi kide uztailaren bukaeran elkartuko dira hautagaien artean hiru aukeratzeko. Trukerako hautatutako artistei abuztuaren lehen astean emango zaie erabakiaren berri.